

**EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2006ko urtarrilaren 12a.**

Partaideak:

- Miren Azkarate andrea, Kultura sailburua eta bileraren buru, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan.
- Gurutz Larrañaga jauna, Kultura Sailaren ordezkaria.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Jesús Montreal jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkaria (Lan Sailburuordetza).
- Josu Sagasti jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkaria (Justizia Sailburuordetza).
- Koro Garmendia andrea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- Marisa Arteagagoitia andrea, Osasun Sailaren ordezkaria.
- Igor Irigoyen jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Javier Burón jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Javier Telleria jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ordezkaria.
- Javier Inda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria.
- Juanjo Aguirrezabala jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Luis M^a Sautu jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Jon Iñaki Zarraga jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.
- José Ignacio Insausti jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Alfredo Iturricha jauna, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Arritxu Marañón andrea, Donostiako Udalaren ordezkaria, Txuri Aramburu andreak lagundurik.
- Inmaculada Boneta andrea, Bilboko Udalaren ordezkaria.
- Alicia Suso andrea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Gotzon Baraia-Etxaburu jauna eta Helena Ortiz de Lejarazu andrea, Kualitate Lantaldetik.
- Oro Ochoa de Eribe andrea (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Bakarne Zuazua andrea, Fco. Javier Gutiérrez jauna, Jesús A. Pérez Arrospide jauna eta Agurtzane Iriondo andrea (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzako teknikariak).

Ezin etorria adierazi dute:

- Joseba Mirena Zorrilla jaunak, EUDELen ordezkariak.
- Maider Otamendi andreak, EUDELen ordezkariak.
- Mikel Torres jaunak, EUDELen ordezkariak.



10:15ean Zuzendaritza Batzordearen presidente Miren Azkaratek bilerari hasiera eman dio, bertaratutakoak agurtu ditu eta aurkezpenen txandari ekin dio. Izan ere, instituzioetako ordezkarien artean aldaketak egon dira eta hau izan da Jaurlaritza berria osatu osteko lehendabiziko bilera.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

2005eko ekainaren 20ko bileraren aktaren idazketari dagokionez, Kultura sailburuak azaldu du bileraren aktaren zirriborroa aurrerapenez helarazi zaiela bertaratutakoei posta bidez eta ez dela beharrezkoa jendaurrean irakurtzea. Onartzeko proposatu den aktaren zirriborroa karpitetan erantsita dagoela jakinarazi du eta oharrik dagoen galdetu du. Eragozpenik adierazi ez denez, gai-zerrendaren bigarren gaia azaltzera jo du.

2. Gazteen Euskal Legea onartu artean Gazte politika integralak sustatzeko Bitarteko Neurriak aurkeztea eta onartzea, hala badagokio.

Miren Azkarate Kultura sailburuak, agerraldiari hasiera emateko, 2005eko hasieran Kultura Sailak eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzak II Gazte Plana amaitu eta gero zeuden aukerak aztertu zituztela baieztatu du.

II Gazte Plana luzatzeaz gainera, beste bi aukera aztertu ziren:

Lehenengoa: III Plana lantzea 2006-2009 epealdirako. Horretarako lantaldeak osatzeko prozesua abiarazi beharko litzateke diagnostikoa gaurkotu, II Planaren emaitzak ebaluatu eta ekintza positibo bakoitza mantendu, ezabatu edo moldatu beharko litzatekeen aztertze —aurreko planarekin egin zen bezala—, eta ekintza berriak txertatzea proposatuko duen lehen zirriborroa prestatu beharko litzateke.

Bigarrena: Gazteen Euskal Legea lantzea. Era berean, lantaldeen prozesua martxan jarri beharra dago, hasierako zirriborroa prestatzeko. Zirriborro hori Legearen eduki guztiekin prestatuko litzateke.

Aldi berean bi prozesuei eustea ahaleginak bikoiztea izango litzateke, gazte-politika integralak eta gartzetasunaren arreta sendotzera bideratutako helburuak erdietsi nahi baitira bi prozesuen bitartez. Horrenbestez, Kultura sailburuak jakinarazi du Gazteen Legea prestatzeko erabakia hartu dela, Gazte Planak sorturiko borondatezko markoa gaindituko duen arau izaerako lanabesa eskura izateko xedearekin.



Horrela, bada, Euskadiko gazteei zuzenduriko arau integrala landu nahi da, besteak beste etxebizitzaren, lanaren, hezkuntzaren, aisiaren eta kulturaren esparruei erantzun egonkor eta koordinatua emango diena. Geroko legeak, beste hainbat gairen artean, gazte politika integralak arautzeko beharrezkoa den esparru egokia sortzen lagunduko du, bai eta euskal instituzio publikoen arteko harremanen koordinazio mekanismoa formalizatu, benetan egonkoritu eta bermatuko ere. Izan ere, artean instituzioek II Gazte Planean martxan jarri zen borondatezko formula batekin egin dute lan.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da legegintzaldi honetan Gazteen Euskal Legearen proiektua lantzea, gero Eusko Legebiltzarrerara igortzeko bertan eztabaidatu eta onar dadin.

Miren Azkarate Kultura sailburuak jakinarazi du berak Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordean eman duela ezagutzera konpromiso hori 2005eko irailaren 29an Kultura Sailak legegintzaldi honetan burutuko dituen jarduketak azaltzeko egin zuen agerraldian.

Era berean, jakinarazi du hori dela Kultura Sailean Lege izaerako araudirik ez duen esparru bakarra, instituzio bakoitzak gai honen inguruan dituen eskumen eta eginkizunak argituko lituzkeen eta I eta II Gazte Planen itzalpean egin den lanari egonkortasuna emango liokeen legea.

Horrenbestez, Jaurlaritzaren euskarri diren alderdien artean erabaki eta adostu ondoren, Kultura Sailak eta Gazteen Legea sortzearen egokitasuna eta beharra eztabaidatzeko egin diren kontaktuen ondoren, Gazteen Legearen proiektua lantzeko metodologiarako proposamenen taxuketari ekin zaio.

Lehenik eta behin, Miren Azkaratek Legea landuta erdietsi nahi diren helburu orokorrak zehaztu ditu:

- biztanle gazteen eskubideen garapena bermatzea;
- arretaguneak: gazteen egoera (emantzipazioa) eta gaztetasuna (sustapena);
- gazteek parte hartzea bultzatzea;
- erakunde publiko guztiak, gazteak eta gizarte osoa inplikatzeko; eta
- legez garatu gabe dagoen kultura sailaren eskumen eskusibo bakarra arautzea.

Gero, Miren Azkaratek Gazteen Legean landu behar diren esparruak zehaztu ditu:

- gaztea eta gazte-politikak zer diren: definizioak;
- euskal administrazio publikoen eskumenak eta funtzioak zehaztea;
- gazte-politika integralak sustatzea;
- gazte zerbitzu eta ekipamenduak arautzea;
- gazteen parte hartzeko bideak bultzatzea, bai elkartutako gazteenak, bai elkartu gabeko gazteenak.



Hori guztiori Legearen oinarrizko edukiak bilduko dituzten hiru atalen baitan sartuko litzateke. Legearen edukiak gazteek eurek prestaturiko Gazteen Eskubideei buruzko Adierazpenean jasota daudenen garapena izango dira, azken buruan. Hauek dira oinarrizko eduki horiek:

- emantzipazioa;
- gaztetasunaren sustapena; eta
- gazteek parte hartzeko bideak.

Jarraian Kultura sailburuak Legea lantzeko proposatu diren faseak zehaztu ditu eta gutxi gora-beherako epealdiak eman ditu.

Lehenik eta behin prozesuaren aurkezpena dago, 2006ko otsailera arte iraungo lukeena. Aurkezpen horretan lanerako metodologia, egutegia, edukien gidioa eta lantaldeen zehaztapena jorratuko da.

Instituzioen, gizarte eragileen, gazteen elkarten, EGKren eta besteren aurrean aurkezpena egin ondoren lantaldeen fasea irekiko litzateke, 2006ko apiriletik ekainera bitartean martxan egongo liratekeenak. Lantalde horietako ekarpenekin legearen lehen zirriborroa prestatuko litzateke. Horrela, bada, bilduko diren lehen edukiak ez lirateke Kultura Sailak edo Gazteria Zuzendaritzak bakarrik egindako gogoetaren emaitza izango, lantaldeetako ekarpenak izango lirateke haien abiaburu.

Legearen zirriborroa prestatu ostean eztabaida publikoaren fasea hasiko litzateke, 2006ko irailetik azarora bitartekoa izan daitekeena. Fase honetan zirriborroa jendaurrera zabalduko litzateke eta, eztabaida berri horretatik abiatuta, ekarpen berriak erantsiko lirateke. Entzunaldiaren izapide formalaz haratago joan nahi da, izapide hori formalki betetze hutsetik haratago, benetako bigarren eztabaida egon dadin eta ekarpen berriak biltzeko aukera egon dadin.

2. fase horrekin amaitutzat joko litzateke lege proposamenaren edukiaren behin betiko idazketa eta azken aurreko fasean sartuko litzateke prozesua, alegia, lege proiektu ororekin batera aurkeztu behar diren bideragarritasun juridiko eta ekonomikoaren inguruko derrigorrezko txosten guztiak eranstea, gero Jaurlaritzaren Kontseilura igor dadin eta 2007ko martxoa baino lehen onar dadin. Apiriletik aurrera Legebiltzarrerara igorriko litzateke eta bertan beste prozesu bat hasiko litzateke Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu arte. Horrenbestez, Gazteen Legea 2008rako onarturik egotea gustatuko litzaziguke, baina fase horretan ez dugu zer esanik eta baliteke aurreikusitako epeetako atzerapenen bat izatea.

Legea lantzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako sail guztiei legea lantzeko prozesua aurkezteko bilerak egitea aurreikusita dago.



Era berean, hiru foru aldundiek, toki erakundeek —EUDELekin koordinaturik—, Arabako zazpi koadrilek, probintzietako hiru hiriburuek, Bizkaiko bederatzi mankomunitateek eta Gipuzkoako zazpi eskualdeek beren ekarpenak egin ahal izango dituzte, bai maila teknikoan bai maila politikoan.

Horrenbestez, sailburuak azpimarratu du dauden maila guztietatik egin beharko liratekeela ekarpenak. Horri dagokionez, eta prozesua instituzioei aurkeztu ondoren, aurkezpenak aurreikusi dira elkartean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kideen, Gazte Bilgunearen eta gazteekin zuzenean harremanetan dauden elkartean aurrean.

Gainera, Kultura sailburuak esan duenez, elkarreetatik kanpoko gazteek prozesuan parte hartzeko eta beren ekarpenak egiteko modua bilatu beharko da.

Azken buruan, Legearen zirriborroaren prestakuntzan instituzio publiko guztiak, gazteak eta gizarte osoa inplikatu nahi da.

Gizarte osora eta, bereziki, elkarreetatik kanpoko gazteengana iristeko beste aurkezpen bat egingo litzateke, komunikazio kanpaina batean datzana. Kanpaina elkarreetatik kanpoko gazteei eta gazteentzako zerbitzuen enpresa eta erakundeei eta zuzenean zein zeharka gazteekin erlazionatutako gizarte eragileei —hala nola unibertsitatei, ikerketa zentroi, kirol elkartei, emakumeen elkartei, GKEei eta abarri— zuzendurik dago.

Informazio guztia Gazteukera Gazte Atarian bistaratuko da, on line foro edo lan taldeen berri emateko. Gazteukeran, hortaz, hiru foro egongo dira:

- 1.- Gazteen eskubideei eta gazteen egoeraren gaineko arreta integralari buruzkoa.
- 2.- Gazteek parte hartzeko bideei buruzkoa.
- 3.- Gaztetasuna sustatzeari buruzkoa.

Horrela, bada, Kultura sailburuak gai-zerrendaren lehen puntua azaltzen amaitu du eta bertaratutakoei, nahi izanez gero, azaldutakoaren inguruan mintzatzeko gonbita egin die, horri guztiorri buruz eztabaidatzeko abagune ugari egongo dela esan duen arren.

Jon Iñaki Zarraga jauna Miren Azkarateri zuzendu zaio. Miren Azkaratek prozesuan parte hartuko duten eragileak zehaztu dituenean Bizkaiari dagozkion eskualdeak bederatzi izango direla baieztatu du. Jon Iñakik zenbateko horren kalkuluaren jatorria zein den galdetu du: bederatzi direla uste duelako ala dauden hamaiketarik bederatzi hautatu dituelako?

Batzordeko idazkari Xabier Sánchezek erantzun dio eta esan dio irizpide berean oinarritu direla lurralde guztietan, hau da, hauteskundeetako barrutietan.



Miren Azkaratek gaineratu du irizpidea hori izan bada ere, beste edozein aplikatu behar dela edo aurkeztutakoa baino aukera egokiagorik badagoela uste izanez gero, proposamen hori aztertu egingo dela.

Legea lantzeko prozesua azaldu eta gero, sailburuak Zuzendaritza Batzorde honetan aurkezten den proposamena —gai-zerrendaren bigarren puntua— azaltzen jarraitu du.

Gazteen Euskal Legea onartu artean gazte politika integralak sustatzeko Bitarteko Neurriak aurkeztea eta onartzea, hala badagokio.

Eusko Jaurlaritzak, hirukoaren koalizio-hitzarmenari esker, Gazteen Legea lantzeko konpromisoaz gain, “enpleguaren, prestakuntzaren, etxebizitzaren, kulturaren eta aisiaren esparruen arreta integrala bermatuko duen gazte-politika” bultzatzen jarraitzeko konpromisoa ere hartu du. Hau da, Jaurlaritzak eskumenak dituen esparruen arreta integrala, esparru batzuetan eskumen eskusiboa izan ez arren.

Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak Gazteen Legea onartu artean 2002ko maiatzaren 28ko Jaurlaritzaren Kontseiluan adostutakoari eusteko konpromisoa hartu du. Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28an II Gazte Planaren ildotik hartu zuen konpromiso horri eutsiko dio Eusko Jaurlaritzak, Gazteen Euskal Legea indarrean sartu arte. Izan ere, Miren Azkaratek azpimarratu duen bezala, gazte politika integralak burutzen jarraitu ahal izateko bermea da konpromiso hori.

Konpromiso hori berori da sailburuak Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkezten duena, Batzordeak onar dezan. Konpromisoa aldez aurretik adostuta dago Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzan inplikaturik dauden sail guztien artean.

Horrenbestez, Miren Azkarate Kultura sailburuak konpromisoa irakurtzeari ekin dio. Konpromisoa, funtsean, honetan datza:

- Kultura Sailak sail bakoitzak ekitaldi bakoitzean burutuko dituen ekintza positiboen programa aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, honek onar dezan. Urtea amaitu eta gero, jarraipen txostena aurkeztuko dio.
- Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzak erabakian aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoa den informazioa biltzen eta aztertzen jarraituko du. Horretarako, gai bakoitzaren eskumena duen sailak kasu bakoitzean behar den laguntza emango du.

Hona helduta, Miren Azkaratek jakinarazi du karpetan aipatutako erabakiaren ale bana erantsi dela eta hitza eman die Eusko Jaurlaritzako ordezkari gaiari buruzko komentariarik edo oharrik izanez gero, adieraz dezaten. Ez da partaidetzarik egon.



Gainera, sailburuak nabarmendu du Kultura Sailak politika integralaren koordinazio eta sustapen mekanismo hauei —2002ko abenduaren 11ko Zuzendaritza Batzordean onartuak— eutsiko diela:

- gazte ataria eta leihatila bakarra (gazteukera);
- zerikusia duten beste planekiko koordinazioa;
- mahai sektorialak;
- udal plan estrategikoak landu eta garatzeko finantziakzioa.

Azken puntu honi dagokionez, Miren Azkaratek jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak urtean 1.200.000 euro baino gehiagoko kreditua konprometitu duela toki erakundeentzat, dirulaguntzen deialdi publikoaren bitartez bere osotasunean udalei helarazteko xedearekin. Sailburuak adierazi du bertaratutakoentzat prestatu den karpetan udalenzako dirulaguntzen urteroko deialdiak egiteko bidea emango duen Dekretuaren kopia bana dagoela.

Ildo horretatik, sailburuak dekretu proiektuaren tramitazioaren berri eman du. Dekretu honek administrazio hartzaileen —udalen— partaidetza ere izan du, EUDELeK landutako kontsulta-txostenaren bitartez. Txosten horretan, besteak beste, gazte gaien eskumena duten administrazioek tokian tokiko gazteentzako zerbitzuak finantzatzeko beren deialdiak —aldi berekoak— egitea proposatu du EUDELeK, horrela dirulaguntzen deialdiak modu eraginkorrean bateragarri egin ahal izateko.

Azkenik, gazteen kolektiboari ere galdetu zaio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bitartekaritzarekin. Beraz, guztiek ezagutzen dute Dekretua.

Hainbatetan aipatu den bezala, instituzioak Eusko Jaurlaritzak onarturiko erakunde arteko planari atxikitzeko prozesua ireki zen I Gazte Planarekin (1999-2001). Atxikimendu horien bidez, Gazte Plana aldundi eta udaletan gazte-politika integralak bultzatzeko lanabes bilakatu zen. Azken buruan, nagusiki lortu nahi zena gazte-politikekin zerikusia duten arlo eta sailtako borondate politiko eta teknikoei deia egitea zen. Horretarako, sustapen eta koordinazio lan nagusienak Zuzendaritza Batzordeak eta, batez ere, bere Idazkaritzak hartu zituen bere gain, urteroko programazio eta ebaluazioak barne.

II Gazte Planaren bidez instituzioak lanabes berriz hornituz joan dira, “programazio eta ebaluazio deszentralizatua” izeneko lortzeko xedearekin. Horrela, bada, instituzio bakoitza gai da bere programazio propioa lantzeko —bere sailen arteko ekintza positiboak batuz—, eta programazio hori aztertu eta gobernu kontseiluan edo osoko bilkuran onartzeko gai ere bada. Berdin jardun dezakete ebaluazioekin eta dagozkion jarraipen-txostenekin ere.

- Gaur egun Gazteen Euskal Behatokiak aldiro-aldi eguneratzen dituen diagnosiak ditugu eskura.
- Sailburuak Xabier Sánchez idazkariari azalpenarekin jarraitzeko eskatu dio. Horrela, bada, Zuzendaritza Batzordeko idazkariak *Gazte planak eta*



programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua delakoaz ere baliatzen garela gogorarazi du. Eskuliburua Zuzendaritza Batzordeak eta, batez ere, bere Batzorde Teknikoak eginiko lan adostuaren emaitza da. Berriro ere eskertzekoak dira bere ahaleginak eta ardura.

- Gainera, *Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria 2002-2005* lanabesa prestatu da sail guztien artean, Eskuliburuaren ildoei jarraiki. Aurreko bileretan aipatu dira jada programazio agiriaren edukiak. Oraingoan argitalpena plazaratu da eta karpetetan ale bana entregatu da. 2006rako eta agian hurrengo urteetarako ere erreferentzia garrantzitsua izango da.

Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak aurkeztu eta gero, Zuzendaritza Batzordeko presidentek hitza hartu du eta beste instituzio, aldundi eta udalek ere antzeko aldi baterako konpromisoak hartzea gomendatu du, bai programazio bai ebaluazioetan gazte politika integralei eusten jarraitze aldera. Era berean, programazio horiek diputatuen osoko bilkuretan, udalbatzetan edo egokia den beste edozein formularen bitartez onartuak izatea gomendatu du.

Horrenbestez, Zuzendaritza Batzordeak foru aldundi eta udalei proposatzen die diputatuen kontseiluan, udalbatzan edo egokia den beste edozein formularen bidez honako konpromisoak hartzea:

1.- Ekitaldiz ekitaldi sailek gauzatuko duten ekintza positiboen programa aurkeztea Diputatuen Kontseiluan (edo, hala badagokio, Foru Batzordean) edo Osoko Bilkuran, onartua izan dadin, eta, urte bukaeran, jarraipen-txosten bat, harik eta Gazteen Legea onartu arte.

2.- Hala ere, Zuzendaritza Batzordea bitartekaritza eta koordinazio foro izaten jarraitzea nahi duela adierazi du Miren Azkaratek. Horren ildotik, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeari urteroko programazio eta ebaluazioak aurkezteko konpromisoa hartzea, gero dagokion koordinazio txostena prestatu ahal izateko eta jarraipena egin ahal izateko. Jarraipen hori ez litzateke II Gazte Planari begira egingo, instituzio bakoitzak ekintzen eta aurrekontu partiden bidez garatutako gazte politika integralei begira egingo litzateke. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko politiken ikuspegi orokorra izango genuke, azken urteotan izatea lortu duguna, hain zuzen ere.

Miren Azkaratek aldundi edo udalen batek gai horri buruz erabakirik hartu duen galdetu du eta bertaratutakoei hitz egiteko gonbita egin die.

Bilboko Udalaren ordezkari Inmaculada Bonetak hitza hartu du eta ezagutzera eman du Bilboko Udalak "Bilbao Gazte Jokatz" izeneko egitasmoa taxututa daukala, udalaren ardatz estrategikoen artean txertatuta dagoena. Ekintzak zehaztu diren 10 ardatzetan sartuta daude. Proiektua Gobernu Kontseilutik igaro ez den arren —2005eko abenduan taxutu delako—, onartua izan ondoren aurtengo lehen hiruhilekoan jarri ahal izango da martxan. Egitasmoaren xedea



zeharkako plan integrala izatea da, II Gazte Planaren jarribideei men egiten dienez gero, baina Bilboko ezaugarriei egokituta.

Ondoren Jon Iñaki Zarragak hartu du hitza eta Miren Azkarateri galdetu dio EUDELen erabakia nork eta noiz hartu duen. Gainera, Zuzendaritza Batzordearen bileran egindako proposamena sakonki aztertuko dutela eta erantzuna emango dutela adierazi du.

Miren Azkaratek erantzun du hala dela, berak bertaraturakoei egindako proposamena aztertzeko eskatu behar diela guztien artean erabakirik egokiena har dezaten.

EUDELi buruzko galderari Xabier Sánchezek erantzun dio, EUDELen Zuzendari Nagusiak martxoan bidali zuela jakinarazpena eta Gazteria Zuzendaritzak kopia bat igorri zuela posta elektronikoz jakinarazpen horren edukien berri emateko.

José Ignacio Insausti Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak ere parte hartu du. Proposamena aztertuko dutela eta horri buruz hartuko duten erabakiaren berri emango dutela adierazi du. Nolanahi ere, 2006an II Gazte Planaren indarraldia amaitzen denean egongo den egoera berriaren inguruko kezka aldez aurretik azaldu ditu.

Hasteko, Eusko Jaurlaritzarekin izandako bileretan 2006an hirugarren plana ala Legea lantzeko prozesua hasteko prozesua abiaraziko zela —gaur azaldu den bezala— jakinarazi zietela esan du. Artean, foru aldundiei —bereziki berak ordezkatzeko duenari— kezka handia sortarazi zaie, aurretik adierazi duten bezala eta agiriren batean jasota egongo den bezala. Kezka hori Jon Iñakik egin duen galderarekin lotu nahi du, hau da, EUDELe emandako erantzuna zer izaerakoa den, teknikoa ala exekutiboa, zein den bere jatorria, alegia. Izan ere, aldundiak izan dira, bere iritziz, Gazte Plana udalekin zuzenean kudeatu dutenak eta, egoera berri honek nahasmena sortaraz dezake. Aldundiek nabarmendu nahi zuten burutu behar ziren eta udalekin zerikusia zuten ekintzak agiri bateratu baten bidez adostu eta landu behar zirela. Prozedura hori guztiori ez da horrela gauzatu, baina are kezkatuago daude Gipuzkoan aintzat hartu den zerbait dela eta. Legearen onarpena 2007an gertatuko dela espero bada ere —bereziki epeen gaia nolakoa den jakinda eta atzerapena handia izango dela jakinda—, txosten juridiko bat prestatzeko eskatu zen. Ez daki txostena prestatuta dagoen ala ez, baina bertan Legea indarrean egon arte funtzionamendua araututa geratu behar zen eta jasota geratu behar zen Gipuzkoako egoerak, Planari dagokionez, ordura arte bezala jarraitu behar zuela —baliabideen eskualdaketak eta abar barne—. Txostena egon badagoen ez daki, baina prozedura da kezka sortarazi diona, udaletan nahasmena egon baitaiteke eta egoera horrek orain arte aldundiek udalekiko bitartekaritzan egindako lana eta lan horren helburuak kaltetuko ditu. Bileran egindako proposamena aztertuko duela adierazi du baina, agerikoa denez, prozedura,



bere iritiz, ez da egokiena izan, bereziki udalekiko harremanetan eragile zuzenak diren aldetik.

Kultura sailburuak hitza hartu du eta jakinarazi du, berak dakienagatik, aldundiek ez dutela txosten juridiko bat egiteko eskaera formalik aurkeztu, bileretan ahoz eskatu diren arren. Baina plan berri bat egon arte II Gazte Plana luzatzeari dagokionez, bada Eusko Jaurlaritzan aurrekaririk. Kultura Sailean ez, baina bai beste sail batzuetan. Horrelakoetan indarraldia urtebetez luzatu da, ez gehiago. Kasu honetan, Kultura Saila errealtatearekin bat datozen epeak jartzen saiatu da. 2008ko epea jarri da eta sailburuak dio ez duela ezagutzen 2 edo 3 ekitaldi gehiago luzatu den planik. Hori dela eta, denbora aurreikuspen hori ikusita, logikoena hirugarren plan bat lantzerantz jotzea da. Bere esanetan, gehiengoak uste izan du plan berri batek ez liokeela orain arte lortutakoari ezer berririk ekarriko. Gaineratu du mahai sektorialak eta informazio bilketa koordinatzeko eta hori guztiori instituzio eta gizarte eragile guztiek eskueran egoteko premia azpimarratu duela sarritan Zuzendaritza Batzordearen bidez.

Udalekiko harremanei dagokienez, egia da Bizkaia eta Gipuzkoan harreman hori, funtsean, aldundien bitartez egin dela, baina harreman hori partekatu beharko litzateke, hau da, udalek bai aldundiekin bai Eusko Jaurlaritzarekin izan beharko lukete harremana. Dekretu bateratua lantzeko ahalegina egin da baina ez da posible izan eta, sailburuaren ustez, koordinaziorako bideak arraz posibleak dira, bakoitzak dirulaguntzen bere deialdia egiten badu eta, bere iritiz, udalei zuzenduriko deialdien arteko koordinazioa ezar daiteke. Miren Azkaratek dio ez duela nahi aldundien partetik inolako errezelarik egon dadin, Jaurlaritzak bere instituzioaren baitan politika integralak burutzen jarraitzeki harago doazen konpromisoak hartu izanagatik. 1.200.000 €ko urte anitzeko Dekretua jasota geratzea nahi izan du Jaurlaritzak, gazte ekipamenduak finantzatzeko eta gazte planak landu eta garatzeko, 2003tik aurrera egin den bezala. Hortik aurrera, Eusko Jaurlaritzak koordinatzeko eta datuak taularatzen jarraitzeko borondate osoa du, denek elkarrekin lan egin dezaten.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak hitza hartu du berriz ere eta polemikarik ez duela sortu nahi azpimarratu du. Alabaina, harrigarria iruditzen zaio hainbat bileratan aipatu denak inongo eraginik ez izatea eta gainera idatziz eskatu behar izatea. Gipuzkoako Gazteria zuzendari den aldetik, bere kezka adierazi du berriro ere, hau da, bereziki udaletan sortuko den nahasmena. Izan ere, aldundia gazte politika integralak sortzeko ahaleginetan ibili da udalekin batera, eta bere ustez haiek izango dira eragina gehien nabariko dutenak. Urte anitzeko Dekretuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, edozein urrats eman baino lehen, gai hori tratatu, aztertu eta koordinatzeko konpromisoa hartu zuen eta, horren orde, gertaera burutuak aurkitu dituzte (behin eta berriz adierazi zuten kezka zena egikaritu da). Eusko Jaurlaritzatik abenduaren 20a baino lehen ekarpenak egiteko jasotako jakinarazpena egun horretan bertan iritsi zen eta nekez egin zezaketen horrelakorik. Gero, Protokolo Akordioa ezartzen zaie eta horren bitartez gauzak nola egin behar dituzten esaten zaie ia. Insaustiren



iritziz, ez da lankidetzaren esparruan jarraitzeko modurik egokiena. Ez diote lankidetzari uko egingo eta beharrezkoa den guztietan parte hartuko dute, baina udalekin sortuko den arazoak eta nahasmena, jakina, handiak izango dira. Izan ere, Dekretuan funtsezkotzat jotzen dituen hainbat gai aintzat har daitezke, adibidez egiturak eta abar. Horra Gipuzkoak duen kezka eta hortik abiatuta egin duen gogoeta. Dena den, proposamena aztertuko dute eta erantzuna idatziz igorriko.

Miren Azkaratek hitza hartu du eta esan du, edozein kasutan ere, lankidetzaren protokoloa proposamena alda daitekeen zerbait dela. Dekretuaren edukiak, bere ustez, aipatu izan dira. Adostasunera heldu izana ala ez beste kontu bat da.

Azkenik, sailburuak, gazteei eta gizarte eragileei dagokienez, sailburuak politika integrala koordinatu eta sustatzeko II Gazte Planeko mekanismoak eustea proposatu du:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak "Gazte ontziak" sustatzea; eta
- gai zehatzak aztertzeko, eztabaidatzeko eta jarduteko mahai sektorialak.

Beraz, sailburuak gaineratu du bitarteko epe horren ildotik, horiek direla Zuzendaritza Batzorde honen aurrean, instituzioei, gazteen gizarte eragileei eta EGKri zuzenduta, egiten diren proposamenak, erakunde bakoitzak dagokion foroan azter ditzaten eta horiek onartzea egokia den ala ez erabaki dezaten. Edozein kasutan, Eusko Jaurlaritzak eutsi egingo dio sail arteko urteroko programazioak eta, urtea amaitutakoan, ekintzen garapen eta burutzapenaren jarraipen txostena egiteko konpromisoari. Gazteria Zuzendaritzak datu guztiak bilduko ditu, hemen aurkezten diren dokumentuek jarraipena izan dezaten. Jakina, instituzio guztien datuak biltzea gustatuko litzaiokeela adierazi du, baina instituzio bakoitzari dagokio erabakia hartzea, bakoitzaren esparru eta eskumenen baitan.

Hortaz, parte-hartze gehiagorik ez denez egon, aldundiek eta udalek Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzak egindako proposamena aztertuko dutela adostu da, gero instituzio bakoitzak dagokionean hartuko duen erabaki edo akordioaren berri emateko.

Jarraian, gai-zerrendaren hirugarren puntua tratatzera igaro da: **2006rako konpromisoak aurkeztea eta "Ekintza positiborako instituzioen konpromisoak 2006rako" agiria onartzea.**

Batetik, sailburua edozein arrazoi dela-eta 2006ko programazio daturik aurkeztu ez duten instituzioen berri ematen hasi da:

- Arabako Foru Aldundiak,
- Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta
- Bilboko Udalak.



Sailburuaren hitzetan, horrek ez du esan nahi programaziorik ez dagoenik, bilera prestatzeko garaian datu horiek eskuragarri ez zeudela baizik. Hori da Bilboko Udalaren kasua, lehen bertako ordezkariak adierazi duen bezala, planaren taxuketari azkeneko ukituak egiten ari zaizkie, udalbatzan onartua izan dadin. Horregatik ez diote daturik igorri Gazte Planaren Idazkaritzari. Beraz, sailburuak baieztatu du laster egongo direla datu horiek eskura txostena osatu ahal izateko.

Bestetik, honako instituzio hauek beren datuak aurkeztu dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako sail guztiek,
- Bizkaiko Foru Aldundiak,
- Gasteizko Udalak, eta
- Donostiako Udalak.

Jarraian Miren Azkaratek II Gazte Planean jasota dauden arloetarako 2006rako aurreikusi diren zenbateko osoak —edozein gazte politika integraletan lantzen jarraitu behar direnak— azaldu ditu:

- Balioen eta gazteen indarkeriaren arloan lan egiteko 5 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua dago.
- Lanaren eta laneratzearen arloan, 15 milioi euro.
- Hezkuntza eta prestakuntzaren arloan, 33 milioi euro.
- Etxebizitza arloan, 29 milioi euro.
- Osasunaren eta gizarte ekintzaren arloan, 68 milioi euro pasatxo.
- Aisia eta kulturaren arloan, ia 18 milioi euro.

Artean jasotako programazio datuek aditzera ematen dutenez,

- Eusko Jaurlaritzak 120 milioi euro baino gehiago erabiliko ditu gazte politika integralak burutzera;
- Bizkaiko Foru Aldundiak 30 milioi;
- Gasteizko Udalak ia 6 milioi; eta
- Donostiako Udalak 13 milioitik gora.

Orotara, 2005ean 298 ekintza burutu baziren, 2006rako 328 programatu dira. Horiei instituzioek garatuko dituztenak gaineratu behar zaizkie. Ez dago horiei buruzko informaziorik, baina, ezbairik gabe, 2006an hainbat ekintza burutuko dute.

Horrela, bada, sailburuak jaso diren programazio datuen laburpena aurkeztu du. Hiru instituzioren programazio daturik ez dagoenez, programatutako ekintzen kopurua, jakina, txikiagoa da aurreko urteetako baino.

Edonola ere, aurrekontuetako zenbatekoa aurreko urteetako baino handiagoa da, honako hauek egindako ahaleginari esker:

- Eusko Jaurlaritzak, aurtengo programazioak iazkoak baino 16 milioi euro gehiago ditu eta;



- Bizkaiko Foru Aldundiak, aurreko urtekoa baino 12 milioi euro gehiagoko programazioa prestatu baitu 2006rako;
- Donostiako Udalak, 10 milioi euro gehiagoko programazioarekin etxebizitza arloan; eta
- Gasteizko Udalak, 2006ko programazioak 2005ekoak baino 400.000 euro gehiago baititu.

Beraz, ekintza kopuruak gora egin ez duen arren, programatutako zenbatekoak handiagoak dira.

Oraindik ere hainbat datu bildu behar dela eta zuzenketaren bat egon daitekeela ikusita, aparteko epea ezarriko da, beste batzuetan bezala, Gazte Planaren Idazkaritzara dokumentua osatzeko beharrezkoak diren aldaketak edo zuzenketak bidaltzeko: urtarrilaren 31ra arte.

Horrela, eta bertaratutako aldetik inolako eragozpenik gabe, onartutzat jo da "Ekintza positiborako instituzioen konpromisoak 2006rako" dokumentua, urtarrilaren 31n itxiko den agirian ageri diren datu gaurkotuekin.

II Gazte Planeko ekintza positiboen programazioaren koordinazio eta uztardura mailari buruzko txostenari dagokionez, Miren Azkaratek adierazi du txostenaren oharren arabera, programatutako ekintza guztiak Euskadiko II Gazte Planaren ekintzetako batekin bat datozela.

2006ko ekintzen programazioaren koordinazio mailari dagokionez, 2003ko abenduaren 3ko Zuzendaritza Batzordean jorratutakoa berriro ere gogorarazi du sailburuak, alegia, sail arteko koordinazioa hobetzeko neurri multzo bat hartu zela eta sailek horretan dihardutela:

- mahai sektorialak;
- beste Plan batzuekin koordinatzea;
- programazio-ebaluazio deszentralizatua;
- gazteentzako errekurtsio-gida (Gazteaukera); eta
- informazio estatistikoaren elkar trukea.

Eragozpenik ez dagoenez, II Gazte Planeko ekintzen eta programatutako gainerako ekintzen arteko koordinazio eta uztardura mailaren 2006ko txostena onartutzat jo da.

Jarraian Kultura sailburua Gazteen Euskal Behatokiak 2005eko bigarren sei hilekoan burututako jarduketak aipatzera igaro da.

BEKAK. Gazteen Euskal Behatokiak bultzaturiko bekek gazteriaren inguruko ikerketak eta ikertzaile gazteen prestakuntza sustatzea dute helburu. Bekak urrian eman zitzaizkien proiektu hauei: "Integrazio soziokulturalerako espazioak EAEko gazte eta gazte etorkinen arteko integrazio-kulturalerako espazioak" eta "Asanblearismoa Euskal Herrian. Gazteen praktika asanblearioei hurbilpen bat".



Bekadunek ikerketaren egoerari buruzko lehen memoria aurkeztu dute jada. Amaierako txostenak 2006ko urrian entregatuko direla aurreikusita dago.

IKERLANAK. Epe honetan Behatokiak hiru ikerlan bukatu ditu.

- Lehenik eta behin, sailburuak azpimarratu du Euskadiko Gazteen Joerak izeneko txosten-bilduma berria hasi duela Behatokiak. Bilduma honen bitartez Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen azterketa kuantitatiboa egin nahi da, gazteen azturei, jarrerei, iritziei eta bizitzan aurrera egiteko trebetasunei buruz. Bildumaren lehen argitalpena abenduan aurkeztu zen eta bizitzaren ikusmoldeetan eta gazteria eta aisiaren arteko harremanean jarri da arreta.
- Era berean, beste ikerketa ildo bati ekin zaio, Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Behatokiaren enkarguz eginga: *Gazteen argazkiak-8*.
- Azkenik, Gazteen Euskal Behatokiak Euskal Herriko Unibertsitateari eskatutako ikerlan bat dago, gazteen artean sortzen ari diren jokaera berriak aztertzen dituena. Ikerlanaren izena "Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz" izango da eta laster aurkeztuko da komunikabideen aurrean eta, hortaz, laster ekingo zaio ikerlanaren hedapenari.

IKERLANEN AURKEZPENAK. Epe honetan honetan 4 ikerlan aurkeztu dira, prentsa oharren eta Behatokiaren webgunearen bitartez:

- *El acceso de la juventud a la vivienda/Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko* (irailean aurkeztua).
- *Gazteen argazkiak-8* (azaroan aurkeztua).
- *Internet con los menores riesgos* (abenduan aurkeztua).
- *Gazteen joerak 1* (abenduan aurkeztua).

ARGITALPEN BERRIAK. Behatokiak hiru liburu argitaratu ditu:

- *Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz/Hacia una nueva cultura de la identidad y la política* (Gazte Plana 19 eta 20).
- *Internet con los menores riesgos*.
- *Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria 2002-2005/Documento programático de la política de juventud de Euskadi 2002-2005* (Gazte Plana 21 eta 22). Agiri honek harrera oso ona izan du.

Estatistikak sortzen, kudeatzen eta mantentzen jarraitu da, bai eta horiek webgunean plazaratzen ere. Gazteei buruzko adierazle interesgarri batzuk ere prestatu dira, gerora Gazteaukeran prestatzen den hileroko buletinaren bitartez hedatzeko. Buletin hori 11.000 gazteri banatzen zaio.

Behatokiaren webgunea kudeatzeko aplikazio informatikoa ere garatu da, eta estatistikak nahiz argitalpenak eta ikastaroak hedatzeko edukiak sortu dira.



Dokumentazio Zentroaren liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartu zenez geroztik eta bertako fondoak garbitu ondoren, liburutegiak dituen 3.300 aleetatik 2.840 daude katalogatuta.

ARGITALPENEN BANAKETARI dagokionez, 2005eko uztailaren eta abenduaren artean Behatokiak bost argitalpenen zabalkundea egin du. Guztira 5.613 ale banatu dira, honako argitalpen hauei dagozkienak:

- *Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko*. Gazte Plana 15: 1.341 ale
- *El acceso de la juventud a la vivienda*. Gazte Plana 16: 1.338 ale
- *Euskal gazte lankideen bizi-ibilbideak*. Gazte Plana 17: 847 ale
- *Trayectorias vitales de la juventud vasca cooperante*. Gazte Plana 18: 847 ale.
- *Gazteen argazkiak-8*. 1.240 ale

PRESTAKUNTZARI dagokionez, 2004ko azaroan Behatokiak prestakuntza jarduerak hasi zituenetik, 14 ikastaro eman dira bertan, askotariko gaiei buruzkoak: arrisku egoeran dauden gazteak, Europako Gazteria programa, parte hartzeko heziketa, gazteen aisian arriskuei aurre hartzea eta abar. Guztira 287 ikastordu izan dira, eta 300 pertsonak hartu dute parte, batez ere udaletako, aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako gazteria teknikariek eta Europako programetan parte hartzen duten gazteek.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIAK 2006RAKO PROGRAMATU DITUEN EKINTZAK. Gazteen Euskal Behatokiak 2005era arte eskaini izan dituen produktu guztiak sendotu nahi ditu 2006an. Hau da, Dokumentazio Zentroa garatu eta kudeatzea, gazteria teknikari eta eragileentzako prestakuntza ikastaroak antolatzea, adierazle estatistikoaren sistema kudeatzea, bi ikerketa bekarako deialdia egitea, 2005eko deialdian beka jaso duten proiektuak kontrolatu eta hedatzea eta webgunea garatu eta mantentzea.

Berrikuntza gisa, Gazte.doc buletin dokumentalaren berrargitarapena aipa daiteke, bi hilean behin agertuko dena, formatu telematikoan.

Hona aurreikusita dauden ikerketak:

- Euskal gazteak zifratu. Gazteei buruzko adierazle nagusien azterketa.
- Gazteen Joerak -2.
- Gazteen Argazkiak -9.
- Aisialdia gazteen artean. Denbora eta erabilerak.
- Gazteen iritziak eta eskakizunak osasungintzari buruz.
- Gazte ekipamenduen analisiaren bigarren fasea.

Aurkezpen honen ondoren, Miren Azkaratek esan du aukera hori aprobetxatu nahi duela "Gazte Ekipamenduen Definizio eta Sailkapenerako Proposamena" izeneko agiria aurkezteko. Aurreko bileran azaldu bezala, dokumentu hau espres sorturiko Gazte Ekipamenduen Definizio eta Sailkapenerako Erakunde Arteko Batzorde Teknikoaren lanaren lehen fasearen emaitza da. Gazte



ekipamenduaren definizioa eta lurralde eta udal guztietan horren anitzak diren gazte ekipamenduen sailkapena arautzeko ahalegina egin da.

Etxebizitza Sailburuordetzaren ordezkari Javier Burónek hitza hartu du etxebizitzari buruzko azterlana aipatzeko. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak azterlana landu duen taldea zoriondu nahi du lana bikaina delako. Lehenik, azterketa eta proposamen interesgarri ugari biltzen ditu etxebizitzaren eta gazteen arloko politikak kudeatu behar dituztenentzat. Bigarrenik, eta lehenago esandakoa kaltetu gabe, arraroa iruditu zaio (formen aldetik) ia komunikabideekin batera izan duelako Etxebizitza Sailak azterlan honen berri. Horrek, berez, ez du garrantzi handirik, baina Burón jaunak dioenez, bere Sailari gustatuko litzaioke azterlana prestatu duen taldearekin nolabaiteko harremana izatea, seguruenik kontsultatu gabe edo aintzat hartu gabe geratu diren hainbat iturri eskuratzen laguntzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko arduradunaren esanetan, are arraragoa iruditu zaie txosten honen argitalpena eta Arartekoaren bulegoarenaren prestakuntza batera gertatu direlako. Arartekoaren bulegoekin hiruhileko batean 6 edo 7 bider bildu izan dira Etxebizitza Sailekoak. Bere ustez, agian koordinazioa hobe daiteke eta jakinarazi du, etorkizunera begira, bere Saila Planaren kudeatzaileen esanetara egongo dela nahi beste koordinazio jarduera edo informazio truke egiteko.

Miren Azkaratek hori zuzena dela erantzun du, baina ez guztiz. Sailburuak ohartarazi du Javier Madrazorekin hizketan ibili zela eta ez zela oso egokia izan Etxebizitza Sailari prentsaurrekoaren berri ez ematea. Baina, aldi berean, esan du egia dela nahikoa aurrerapenez egindako azterlana izan dela, eta elkarrekin hausnartzen ibili zirela ezaugarri hauetako agiri bat plazaratzea komenigarria zen ala ez. Miren Azkaratek ez du gogoratzen hauteskunde garaian ala kanpaina hasi baino lehen izan zen hura, eta uste izan zuten ez zela komenigarria, beharrezkoa ez zen iskanbila sor ez zedin. Koordinazioa hobe zitekeela onartuta, Sailburuak argitu du Etxebizitza Sailak ikerketa ezagutzen zuela —aurreko lantaldeak eta geroztik lanean ibili direnetako askok bederen, bai— eta azterlanaren datuak Etxebizitza Sailak berak eman zituela.

Xabier Sánchezek zehaztaper bat egin du: kasu honetan Arartekoa izan zela Gazteen Euskal Behatokia jo zuena. Arartekoak bere txosten propioa egingo zuela erabaki aurretik, Behatokian egindako txostena helarazi zitzaion. Hortik aurrera, Arartekoak bere txostena egitea erabaki zuen eta, suposatzekoa den bezala, bestelako ezaugarriak izan behar zituen. Beraz, Arartekoa erabaki horren jakitun zegoen bere txostena landuko zuela erabaki aurretik. Izatez, Kultura Sailean bilera bat egin zen berarekin eta Gazteen Euskal Behatokiko arduradunarekin.

Burón jaunak hitza hartu du berriz ere eta esan du ez diola honi duen garrantzia baino gehiago eman nahi. Alabaina, Etxebizitza Sailean dagoen inpresioa Kultura Sailean lan giroa eta metodologia bestelakoak direla da. Kasu honetan,



lanaren emaitza ikusita, bikaina dela iruditu zaio, eta seguruenik, ahal izanez gero ere, ez zuketan ezertxo ere aldatuko. Aurrerantzean ikerketa ildo horri eutsi nahi bazaio, Etxebizitza Saila Kultura Sailaren esanetara geratuko da. Dena den, bere asmoa ez da polemika gehiegirik sortzea izan.

Sailburuak baietza eman du eta, gai-zerrendaren seigarren puntua lantzerara pasatu da, hau da, II Gazte Planaren ebaluazioaren metodologia eta egutegia. 2005eko ekintzen betetze mailaren ebaluaziorako epeak gogorarazi ditu. Ebaluazio hori, izan ere, guztiz beharrezkoa da II Gazte Planaren amaierako ebaluazioa egin ahal izateko.

Horretarako, aurreko urteetan bezala, Sailburuak Planarekin konprometitu edo Planari atxiki zaizkion instituzio guztiei 2005eko ebaluazio datuak eskatuko zaizkiela baieztatu du. Horrela, bada, ebaluazio datuen eskaera otsailaren 1ean egingo da, beranduena otsailaren 28rako Gazte Planaren Idazkaritzan egon daitezen. Agiria itxita dagoenean Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaio eta gero Eusko Legebiltzarrari, II Gazte Planeko eta aurreko legegintzaldiko konpromisoa den aldetik.

Beste alde batetik, II Gazte Planaren ebaluazio metodologiaren baitan, urteroko jarraipenaz aparte, Planaren indarraldia amaitu ondoren, emaitzen ebaluazioa eta, beranduago, eraginaren ebaluazioa burutu behar dira.

Horrela, bada, II Gazte Plan osoaren emaitzen ebaluazioarekin hastea dagokio Kultura Sailari. Ebaluazio horren helburua lortu nahi ziren emaitzak erdietsi diren jakitea da. Horretarako, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- estaldura, erabilera eta gogobetetze maila;
- programen estaldura;
- ekoizitako agiri eta lanabesen azterketa; eta
- esku-hartzeek duten eraginkortasunaren kontrola.

I Gazte Planarekin egin zen moduan, Eusko Jaurlaritzaren ebaluazioa egiteko enkargua kanpoko auditoretza bati egingo dio Kultura Sailak. Horretarako teknika berberak baliatuko dira, hau da:

- azken lau urteotan sortu diren agiri edo arauen azterketa;
- azken emaitzen adierazleak;
- adierazleen erabilera, aurreko egoerarekin alderatuta, hau da, 2001ekoekin alderatuta; eta
- inkesta espezifikokoak egitea.

Kultura Sailak, eskuetan dituen datuez aparte besteren bat beharko balu, koordinatzaileekin edo programen ardura duten pertsonengana joko luke. Sailburuak dio ziur dagoela harrerarik onena izango duela. Dagoeneko adierazi duen bezala, eta aurreko Zuzendaritza Batzordeetan aipatu den bezala, I Gazte Planaren emaitzen eta eraginaren ebaluazioak Kultura Sailaren eskuetan daude. Ebaluazio horiek erreferentziazkoak gerta daitezkeenez eta Gazte



Planaren Idazkaritzan aleen hainbat eskaera —Euskadikoak nahiz Euskaditik kanpokoak— jasotzen ari direnez, I Gazte Planaren bi ebaluazio horiekin —emaitzen ebaluazioarekin eta eraginaren ebaluazioarekin— argitalpen bat prestatzea komenigarria izan da.

Besterik gabe, Miren Azkarate gai-zerrendaren azken puntura igaro da, hau da, galde-eskeetara.

Ez da parte-hartze gehiagorik egon eta bilera amaitutzat jo da. Bertaratu izana eskertu ondoren, partaide guztiak hurrengo bilerara arte agurtu ditu.